

# ALTZA! PORRA!



Euskal Herriko  
Trikitixa Elkartea

EUSKAL HERRIKO TRIKITIXA ELKARTEAREN BOLETINA

2001eko maiatza-ekaina / 2 zenbakia

Erromeria Arrateko Amaren

omenez uztailaren 8an

Trikitilariak munduan barrena

Euskaddiko trikitilari txapelketa

## Erromeria Arrateko Amaren omenez uztailaren 8an



**Orain 14 urteko egunaren ondotik trikitilari eta zale guztientzat prestatu dugun eguna duzue hau**

Arrateko Ama orain 14 urte Trikitilarien zaindari izendatua izan zen. Urte hartan egin zen erromerian parte hartu zuten zenbait trikitilari egun hura gogoratzeko asmoz berriro erromeri bat antolatzeko ideia luzatu zioten Trikitixa Elkarteari. Erromeria xumea izango da, gertakari hura gogoratu eta ongi pasatzeko aitzakia ederra.

Egitaraua honoko hau izango da:

- 11tan elkartuko gera Arraten trikitilari eta trikitizale guztiak.
- 12 meza berezia izango da, trikitilariak Goazen Arratera eta Arrateko Ama piezak joko dituztelarik.
- Ondoren Arrateko kanpan egongo den eszenatokian soinu eta pandero pixka bat izango dugu gosea etortzen den arte.
- 14:30tan bazkalordua dugu.
- 17:30tan erromeria, protagonismoa orain 14 urte bertan izan ziren trikitilariak izango dutelarik.

Bazkaririk ez dugu antolatu baina hala nahi duenak bertako Kantabria jatetxean lekua har dezake. Hauxe da telefonoa: 943121262.

Edozein argibide behar baldin baduzue deitu telefonoz Elkartera.

Denok gonbidatuta zaudete!

# Trikitolariak munduan barrena

Tapia Uzbekistanen izan zen



**Uzbekistanen ibili haiz. Deskribatu iezaguk non dagoen eta nolakoa den paraje hura.**

Asia zentrolean dago. Mugak hauek ditu Uzbekistanek: Hegoaldean Afganistan, Ifarraldetik Kazakhstan. Mendebaletik Turkmenistan eta Ekialdetik Kirgizia eta Tadjikistan. Txinatik gertu dago Uzbekistan. Eta garai batean paso garrantzitsua izan zen seta (seda)-ren ibilbidea deiturikoan. Tashquent du hiriburua. Eta Samarkanda eta Bukaran izeneko herrialdetan gordetzen dira antzinako tenplo eta eliza garrantzitsuenak. Lurralde gehiena desertua da Uzbekistanen. Arraza asko dago. Erljio ezberdinak, musulmanak dira gehienak. Hizkuntza ezberdinak: Uzbeko hizkuntza, errusoa eta Tahjikoa.

**-Nola hartu zuten trikitixaren doinua?**

Nik uste harritu egiten genituela guk haiek, haiek gu bezainbat. Baina atentzio handiz entzuteaz gain txalotu eta zoriondu egiten gintuzten. Gu batez ere beste hiru taldekin batera ibili ginen haruntz eta honuntz, kontzertu batetik bestera, Tashquentetik Samarkandara eta buelta: Orkesta modukoak ziren, Kazakhstanekoak, Tartaroak eta Mongoliakoak. Talde bakoitzean 40 bat izango ziren eta

instrumentu autoktonoekin osatzen zituzten beren taldeak. Baina tartean ezagutzen genituen instrumentu batzuek ere bai; Biolontzelo, kontrabaxu edo akordeoi kromatiko (jeneralian Errusian eginiko "jupiter" markakoak).

**-Ba al dago han akordeoi diatonikorik edo antzekorik?**

Egongo da seguruenik baino gurekin ibili ziren taldeetan ez zegoen halakorik. Antzekoena Soinu handia. Lehen aipatu dudan "Jupiter" markakoak.

**-Lotu duzue harremanik han ezagututakoekin?**

Ez genien tutik ulertzen. Bakoitzak beren herriko hizkuntza hitzegiteaz gain Errusiera menperatzen zuten eta beraien artean ez zeukaten komunikatzeko arazorik. Baina gurekin Frantzesez edo Inglesez zekiten gutxirekin hitzegin ahal genezakeen. Humore ona eta komunikazio hobea lortu genuen edozein modutara azkenerako, Toki guzietara elkarrekin joaten ginenez, ezagutzen genuen elkar. Hala ere itzultzaile batzuek izaten genituen bidai guzian.

Arakama eta  
Elortza  
E.E.B.B-etara

Jose Agustin Elortza eta Xabier Arakama trikitilariak beriz Ekainaren amaiera eta Uztailaren hasiera E.E.B.B.etan pastuko dute. Ekainaren 28, 29 eta 30ean Chinon izango dira, Uztailaren 3, 4 eta 5ean Las Vegasen, Uztailaren 6, 7 eta 8an Elcon eta 9, 10 eta 11ean San Franciscan. Ez da lan makala bazter haietako euskaldunak alaitzea eta dantzan jartzea.

Jon Ostolaza eta  
Rakel Pujana  
Calaf-eko  
festibalera

Jon Ostolaza eta Rakel Pujanak osatzen duten trikitixa bikotea Ekainaren 30ean Catalunya Calaf herrian ospatuko den jaialdi handian partehartzaile izango ditugu. Beraiekin batera Buli eta Ibon txalapartariak eta Aritz Ezeiza albokaria arituko dira. Beraiekin batera Irlandako, New Orleanseko, Catalunya eta Berber Herriko taldeak arituko dira.

# Euskadiko trikitilari gazteen XXT. txapelketa Zeanurin

15 eta 22 urte arteko trikitilarietara zuzenduriko txapelketa duzue hau. Kanporaketak Uztailaren 7an Igorreko San Cristobal auzoan gaueko 21:30tan eta Uztailaren 21ean Arteako pilotalekuan gaueko 22:00tan izango dira. Finala berriz, Abuztuaren 12an izango da Zeanuriko plazan arratsaldeko 18:00tatik aurrera. Informazio gehiago eskuratu nahi baduzue 946739146 telefonora deitzea besterik ez duzue egin behar.

## F e s t a r i k f e s t a

### TRIKITILARI EGUNA ARRASATEN

Arrasateko Trikitixa Eskolaren hamargarren urteurrena ospatzeko festa antolatu zuten Maiatzaren 25 eta 26an. Ostiralez Trikitixa Eskolako ikasleek emanaldia egin zuten eta Larunbatean egun osoko festa izan zuten. Kalejira, bazkaria, jolasak, sagardoa, bertsolariak eta erromeria. Zorionak Arrasatekoiei, segi orain arte bezala gutxienez beste hamar urtean!

Hemen duzue egun horretako Arrasate Eskolako kantua:

*Trikitilariak gatzoz Arrasatetik.*

*Bi lagun berritsukin, poztasuna, poztasuan;*

*Pekadun gizona ta mila belarriduna.*

*Dantzatu! Bihotz berua freskatzeko;  
Kantatu! Irrintzia dela tarteko;  
Gozatu! Denok konturaketako trikitixa ez dela lo egiteko.*

Hitzak: Jon Sarasua  
Doinua: Jose Ramon Vitoria

### TRIKITIXA ALARDEA ESPEJON

Urtero bezala Arabako Trikitixa Elkarteak Trikitixa Alardea zuen Ekainaren 16rako. Arabako Espejo herria aukeratu zuten antolatzaileek. Goizean kalejira ibili ziren herrian barrena. Ordubetan bazkaldu eta arratsaldean alardea izan zuten trikitixa eskolen eskutik.

## Argitalpenak

### TRIKI TA KE, DISKO BERRIA



Esan daiteke hau dela Triki ta ke taldearen lehen lana aurretik konpacto formatuan maketa bat atera bazuten ere. Iker Dorronsoro eta bere arreba Gurutze oso gazte zirelarik hasi ziren plazarik plaza trikitixa bikote moduan. 1996 urtean Ikerrek eta Gurutzek beste bi lagunekin batera Triki ta ke sortu zuten. Geroztik taldean aldaketak izan dira eta gaurko taldea honoko hauek osatzen dute:

Anabel Arraiza: ahotsak  
Igor Telletxea: bateria, perkusioa eta teklatura

### TRIKI TA KE, DISKO BERRIA



Kristina Solano eta Amaia Oreja bikote bezala orain sei urte hasi ziren. Lehendabizi bakarrik, ondoren erritmo kaxa baten laguntza eta azkenik musikarien laguntzarekin baina beti Kristina eta Amaia izenaren bueltan. Bilakaera honen ondorio normalizat har dezakegu azkenean talde bihurtzea eta M-n ezten izena aukeratu dute lehen diskoa kaleratzearren aitzakia medio.

Bitxikeri modura bada kantu bat Xabier Solano(doinua) eta Ixiar Orejak(hitzak) erdibana eginikoa. Iker Dorronsoro: trikitixa eta ahotsak  
Imanol Goikoetxea: gitarra akustikoa, gitarra elektrikoa eta ahotsak

### TRIKI TA KE, DISKO BERRIA



Tomas Sorraluze "Epelde" (Azkoitia, 1945) eta Anjel Larrañaga (Azkoitia-1947) ditugu proiektu honen bi hankak. Hauek beren bigarren lana kaleratu dute Noiz arte? izenburupean. Produktzio lanak Iker Goenagak egin ditu eta grabaketaren arduraduna Cesar Ibarretxe izan da. Hitzei dagokienez Anjel Larrañagak gehienbat koplatara jo du, "motzak dira eta bizitasuna ematen diote kantuari". Hamalau kantu ditu diskoak, lehengo molde zaharrea eginak.

